

# astola

## ikerketa eta historia

DURANGALDEKO URTEKARIA

**16**.zk 2022 • 5€



57. DURANGOKO AZOKA
2022ko abenduaren 7tik 11ra
www.durangokoazoka.eus
DA!




PARRA taberna
www.parrataberna.com
Herriko plaza 2
Elorrio

# AURKIBIDEA

**Durangaldeko urtekaria. 2022**

**astola**




Astola iritzi orori zabalik dagoen aldizkaria da, horrek ez du esan nahi artikuluen sinatzaileekin bat datorrenik.

**Erredakzioa, publizitatea eta administraritza:**
Gerediaga Elkartea
Larrasoloeta, 3 48200 Durango

Tel. 94 681 80 66
E-mail: gerediaga@gerediaga.eus
www.gerediaga.eus

**Koordinatzailea:** Txelu Angoitia

**Erredakzio kontseilua:**
Jon Irazabal, Izaskun Ellakuriaga, Beñat Gaztelurrutia, Nerea Mujika, Markel Onandia, Aingeru Mimentza, Juan Rekalde, Gotzon Gómez

**Argazkia:** Txelu Angoitia

**Publizitatea eta administraritza:**
Beñat Gaztelurrutia

**Dokumentazioa eta banaketa:**
Esther Soto

**Diseinua eta maketazioa:**
Biko komunikazioa (Durango)

**Inprimategia:** Gertu koop.

**Lege gordailua:** SS-1525-07

**ISSN:** 1888-234X

© Argitalpen honena, Gerediaga Elkartea 2022

© Testuak eta argazkiak, egileenak

**www.gerediaga.eus**

## 6 | LABURREAN

Durangaldeko urteko kultur kronika laburra: Lehen cromlechak Oiz mendian, Durangaldeko ondarea ezagutzera emateko bi argitalpen berri, Otxandioko Plaza Nagusiko indusketak...









## 22 | LANDA PAISAIA BATEN EBOLUZIOA

Ibaizabal ibaiaren Goi-Arroaren pasaiak bere etorkizunean eragiten duen eraldaketa eta hirigintza prozesua bizi izan du azken hiru hamarkadatan.

**Adrian Burgada Ereño. Ikerlari Gazteen Beka 2022**




## 32 I LEOPOLDO ZUGAZA

Abrimos una nueva ventana en Astola entrevistando a Leopoldo Zugaza. Activista y referente cultural desde hace más de medio siglo, prosigue a sus 90 años con su incansable actividad.

**Juanan Hernández**





## 46 I KORTAK: HERRI-BASOETAKO SAIL BOROBILEN AZTARNAK DURANGALDEAN

"Korta" forma zirkularreko lursaila da, jatorriz herri-jabetzakoa eta normalean larreetarako erabiltzen dena.

**Josu Etxezarraga Ortuondo**





## 62 I LOS ETXABURU Y SU TORRE

Guerreros y también hombres de negocios, los Etxaburu dominaron la comarca durante la oscura Edad Media desde su impresionante torre en Izurtza.

**Juan Manuel Cembellin**





## 76 I IURRETAKO HARGINAK. GURE OFIZIO BATEN AZKEN AZTARNEN BILA

Santa Apolonia eta Gallandako harriaren kalitateari esker, harrobiko jarduera garrantzitsua garatu zen Iurretako inguruotan.

**Markel Onaindia Txabarri**








## 92 | LOS LAVADEROS DE DURANGO. ESPACIO PÚBLICO DE LA MUJER Y PATRIMONIO OLVIDADO

Los lavaderos no solo eran puestos de trabajo femeninos, sino también lugar de encuentro y socialización para las mujeres.

**Nerea Gastón Tabera**





## 120 | DURANGO MARTXOAK 31

Durante 2022, una excavación en el cementerio ha intentado esclarecer el paradero de algunas víctimas del bombardeo de Durango en 1937.

**Jimi Jiménez**

## 106 | BARRUKO IBILBIDEAK

Kulturarekin loturiko bost gonbidatuk bidezidorretatik eramango gaituzte, sakoneko bidexka apaletik.





## 136 | DURANGALDEKO PAISAIA ZORAGARRIAREN AZPITIK

Haran berde eta haitzen edertasunaren azpian, Durangaldeak itsas arrezifea izan zeneko altxor geologiko handia dauka.

**Arturo Apraiz**

# DURANGALDEAN EUSKARAZ BIZI.



Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa

Mancomunidad de la Merindad de Durango



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

LABURREAN




JUAN CARLOS LÓPEZ QUINTANA
AGIRI ARKEOLOGIA ELKARTEA

# BIZKAIKO PIRINIOETAKO LEHEN CROMLECHAK OIZ MENDIAN

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren otsailaren 3ko 25/2009 Dekretuan, Oizko estazioak 6 monumentu megalitiko hartzen ditu, kultura-ondasun gisa kalifikatuta daudenak. Batetik, Ama Birjinen Baso 1 eta Iturzurigana trikuharriak, eta bestetik, Ipiñarrietako tumuluak: Ama Birjinen Baso 2, Probazelaiburu 1 eta Probazelaiburu 2. Hala ere, Berrizko eta Mallabiko udalek sustatuta eta AGIRI Arkeologia Elkarteak zuzenduta, Oizko estazio megalitikoan egin zen ebaluazio arkeologikoak (2021), zenbait aldaketa proposatzen ditu Oizko monumentuen osaera eta kalifikazioari dagokionez. Hauxe da proposamena:

1. Probazelaiburuko multzoa 1: trikuharria/zista eta harrespila (cromlech).
2. Probazelaiburuko trikuharria 2.
3. Iturzuriganako harrespila.
4. Ama Birjinen Baso 1eko trikuharria.
5. Ipiñarrietako tumulua.

Pirinioetako harrespilak edo cromlechak errausketarako hilobi-monumentuak dira, azken brontzetik erromatarren garaira arte eraikiak. Bertikalean jarritako lauzaz eta blokez osatutako zirkulu txikiak dira, eta barruan,



Probazelaiburu I.

## Pirinioetako harrespilak edo *cromlechak* errausketarako hilobi-monumentuak dira



Iturzurigana.

oro har, erraustutako giza hezurrez eta ikatzez osatutako hilobi-biltegia dute. Monumentu mota hau oso adierazpen arkeologiko berezia da, mendebaldeko eta erdialdeko Pirinioetan, Oria-Leizaran ibaien eta Andorrako lurraldearen artean banatzen dena, gutxi gorabehera. Neolito aurreratutik hasi eta Brontze Arora arte, ehorzketa kolektibo edo indibidualean oinarritzen ziren hilobi-praktikak hautsi zituen. Erritu berrian gorpuak errausten ziren, eta Burdin Aroko kultura zeltikoekin Europa osora hedatuz joan zen.

Duela urte gutxira arte, Oria eta Leizaran ibaien inguruan, mendebaldeko muga zurrun mantentzen zen. Hala ere, 2012. urtean, J.A. Mujika Alustizak (EHUko Historiaurrearen arloko irakaslea) zuzendutako talde batek zalantzan jarri zuen muga horren balioa, Aralar mendilerroko Ondarre I cromlecha aurkitu eta induskatu baitzuten.

2021ean, Probazelaiburu I eta Iturzuriganako monumentuen indusketa arkeologikoak bi harrespil berri plazaratu zituen, eta C14 datazioek Pirinioetako zirkuluen esparru kronologikoan kokatzen zituzten. Eremu nuklearreko beste cromlech askotan bezala, Oizen ez dugu erraustutako giza arrastorik aurkitu. Hala ere, egituren tipologiak eta C14 datazioak berretsi egiten dute Pirinioetako cromlechak direla. Probazelaiburu I eta Iturzurigana dira, gaur egun, Pirinioetako zirkuluen eremu nuklearretik mendebalderantza urrutien dauden hilobi-monumentuak.

LABURREAN




IZASKUN ELLAKURIAGA

# ONDAREZ BETETAKO ARGITALPENAK

**Durangaldeko ondarea ezagutzera emateko bi argitalpen berri dauzkagu.**

Alde batetik, Iurretako herritarrek auzolanean abian ipinitako ikastolaren historia jasotzen duen liburua eta ikus-entzunezkoa daude. Bestetik, eskualdeko bidezidor eta basoetan zehar, natur ondareaz jabetzeko eta ibilbideetako leku esanguratsuetako ondarea ezagutzeko Durangoko Alpino Tabira Mendi Taldeak egin du argitalpena.

**"Auzolan miresgarri baten kronika"**

Horrela definitu dute egileek Iurretako Goiuria Ikastolari buruz egindako argitalpena. 1968tik 1981era bitartean herrian egondako ikastolaren historia jaso eta transmititzeko helburuz landu dute liburua Kristina Mardarasek, Justo Alberdik, Jon Irazabalek eta Markel Onandiak. Gerediaga Elkartea izan da argitaldaria eta Iurretako Udalak babestu du.

60ko hamarkadan, oraindik Frankismo betean, ikastolen mugimendua hedatu zen Euskal Herrian zehar. Durangaldean ere hainbat herritan zabaldu ziren ikastolak: Durangon lehenik, 1966an, eta hurrengo urteetan gainerakoak. Iurretan 1968ko urrian zabaldu zituen ateak, guraso talde baten eta Julen Kaltzada eta beste ekintzaile batzuen inplikazioari eskerrak.

Herriko umeek euskaraz ikasi ahal izateko, auzolan handi bat garatu zuten guraso, irakasle eta gazte ekintzaileen artean. Traba asko gainditu behar izan zituzten. Esaterako, erregimenaren inspektoreak birritan zarratu zuen ikastola, eta etxeetan, era klandestinoan, eskolak ematen jarraitu zuten. 1981an, Maiztegi herri eskolarekin fusionatu zen Goiuria ikastola.

Historia guzti hori kontatzen da liburuan, Ikastolan ibilitako guraso, ikasle, irakasle eta ekintzaileen testigantzetan oinarrituta. Paperezko argitalpenaz harago, ikus-entzunezkoa ere prestatu dute.

**Durangaldea ezagutzeko 9 ibilbideko liburua**

Durangoko Alpino Tabira Mendi Klubak eskualdeko ondare naturala eta kulturala uztartu ditu argitalpen berezi baten. "Ermitak bide. Durangaldea bizi" izeneko liburuan, Durangaldean oinarritutako 9 ibilbide prestatu dituzte.

Liburuak hausnarketarako bide bat zabaltzea nahi du; irakurlea ibiltzera animatzen dute inguruko ondarea ezagutzeko bere garrantziaz jabetzeko eta bera mantentzeko beharra sentitzeko.

Ibilbideei lotura bat emateko, ermitarik ermita egitea proposatzen dute ibilbidetako eta ondarearen arrastoa jarraitzen du argitalpenak. Lekuan lekuko lekukotzak, istorioak, ohiturak eta gertakariak ere biltzen dira.




**Argitalpen bien azala.** Txelu Angotia

LABURREAN

**ANDER BERROJALBIZ**
HISTORIALARIA




# DOMNA LEGUNCIA ESCEBERRIENSIS DURANGARRA:
## HISTORIA ETA LEGENDAK UZTARTUTA

**Ursula K. Le Guin idazle estatubatuarrak, bere lehen eleberrian, baieztapen kutsua duen honako galdera erretorikoa planteatu zuen: "Zelan bereizi eginak legendatik, egia egiatik?**

Bizkaiko lehen jaunen legenda eta kondairatan Eskoziako erregeen alabak, herensugeak (aurrekoak haurdun uzten zituztenak) eta milaka lagunek parte hartzen zuten batailak aurki ditzakegu. Hamaika bertsio daude; gehienek VIII-IX. mendeetan kokatzen dituzte gertakariak, gorde diren agiri historikoak baino lehenagoko garaietan (XI. mendean agertzen dira lehen dokumentuak Bizkaian). Gurean, Gonzalo de Otalora durangarra izan zen lehena kondairok aipatzen, 1634. urtean argitaratutako Micrología geográfica del assiento de la Noble Merindad de Durango liburuan. Logikoki, bertan, Durangaldeko pertsonaia eta gertakariek beste egile bizkaitarren idatzietan baino pisu gehiago daukate, kasu batzuetan gainerako testuetan agertzen ez diren pasadizoak eta protagonistak aurkeztuz.

Le Guinen galderaren ildora, azken hauetako bat aipatuko dugu. Otaloraren arabera, Antso (Sançio), Aznarren semea, Eudon eta Andecaren oinordekoa eta Durangoko lurreko jauna, *"[en torno al siglo IX] cassó con Lechuguina señora de valor y los dos dando tierras fundaron la Iglessia de San Agustín de Hechavarria [...] edificando un nicho o cappilla de arcos en el ciminterio se enterraron"*. Ondoren, Lechuguina eta Antsoren semea, Ortun, aipatzen da. Ortun, halaber, Antso Estegizen aita izango litzateke, azken honek Arrigorriagako bataila entzutetsuan parte hartu omen zuelarik, beti Otaloraren hitzetan, 870. urtean.



San Agustin elizako inskripzioak.

Bestalde, 1883an, Fidel Fita adituak XVI. mendeko dokumentu baten transkripzioa argitaratu zuen, teorian XI. mendeko beste agiri baten kopia zena. Bertan, San Agustin de Etxebarriako monasterioaren fundazioa 1053. urtean kokatzen da, hau Munio Sanciç Durangoko kondeari eta Leguntia bere emazte eta kondesari egotziz. Zenbait historialarik idatzi honen egiazkotasuna zalantzan jarri dute. Hala ere,



San Agustin elizako irudia.

badakigu XI. mendetik XIII.aren hasierara Durangoko lurra Bizkaia eta Gaztelako Erresumari lotuta egotetik Nafarroako Korora pasa zela zenbait alditan. Hortaz, benetakoa ez bada, baliteke Durangoko kondeena eta San Agustin de Etxebarriaren fundazioarena XII-XIII. mendeetako borroka politikoen testuinguruan sorturiko istorio apokrifoa izatea.

Dena den, Juan Antonio Llorentek, 1807an, Donemiliagan aurkituriko beste agiri bat transkribatu zuen, 1051. urtekoa, Busturiako Santa Maria de Izpeari buruzkoa eta orain arte bere egiazkotasunaren inguruan zalantzarik sortu ez duena. Honetan, lekuko gisa –beste hainbat jauntxoen artean–, "Domna Leguncia esceberriensis" aipatzen da.

Honela, badirudi, edozein kasutan, XI. mendean Leguncia izeneko eta "Domna" (Andrea) eta "esceberriensis" (etxeberriako) tratamenduak jasotzen zituen emakume boteretsu bat existitu zela, bai garaiko agirietan bai ondorengo kondairetan agertzeko moduko bezain boteretsua.

Hala eta guztiz ere, hasierako galderara itzulita: Lechuguina bai, baina herensugeak aintzat hartuko al ditugu? Ematen du, herensugeen kontu horiek baztertu egin behar direla. Bai? Ziur? Erdi Aroan, izaki mitikoak familia leinuak goraipatzeko eta ezezagunak edo aitorrezinak ziren aitatasunak justifikatu edo ezkutatzekomaiz erabili izan zirela jakinda, baztertu? Jakinda, baita ere, XI. mendeko agiri nafar batean ere Gomiç Sugaharra ("sugar") izena erabili zela? Eta ez ditugu kontuan hartu beharko antzeko abizenak erabiliz, penintsula hainbeste bider astindu eta Irlanda eta Eskoziako errege izan ziren bikingoak?

Julio-César Santoyo filologoaren hitzetan: "Gaur, legenda, bihar agian historia"





Durangoko kondeen hilobiak San Agustinen.

LABURREAN

BELÉN BENGOETXEA
REMENTERIA
UPV/EHU

# OTXANDIOKO PLAZA NAGUSIKO INDUSKETAK

2021eko iraila eta abendua bitartean hirugarren eta azken indusketa-kanpaina burutu da Otxandioko Plaza Nagusian. Emaitzak benetan positiboak izan dira, izan ere, horien bitartez plaza gaur egun bezala eratu aurretik han zer egon zen jakitea lortu dugu.

XI. mendearen amaieratik XII. mendearen hasierara bitartean hasi zen dena. Garai hartan, material galkorrez (egurra, esaterako) egindako hainbat etxek osatutako herrixka batek hartu zuen lekua. Kontserbatu dena zutoinak sartzeko egiten ziren zuloak izan dira, buztin naturalean zulatuak, eta oraindik interpretatu gabeko egitura batzuen oinarriak. Herrixka nekazal girokoa zen, eta nahiko zabala izan behar zuen, plaza osoan zehar aurkitu baitira herrixkaren aztarnak.

XIII. mendearen erdialdean, Otxandio hiribilduaren sorrerarekin batera, kokaleku horrek eragina izan zuen eta eraldatu egin zen, baina, ziur aski, burdinaren eraldaketarekin lotutako jarduerak egiteko erabiltzen jarraitu zen.

Aldaketa benetan erradikala XIV. mendean iritsi zen, bertan 5 metroko zabalera eta 3 metroko sakonera zuen buztinean zulatutako lubaki bat eraiki zenean,



Goi Erdi Aroko herrixkako zutoin-zuloak.

**Emaitzak benetan positiboak izan dira, izan ere, horien bitartez plaza gaur egun bezala eratu aurretik han zer egon zen jakitea lortu dugu.**

banderadun dorre bat babesten zuena. XIV. mendearen amaieratik XV. mendearen zati handi batera bitartean zonaldean bizi izan zen gatazka eta indarkeria egoerarekin lotu behar dugu, bandoen arteko borroken ondorioz. Izan ere, Otxandioko Pedro de Abendaño dorreak izan behar zuen defentsa-egitura identifikatu dugu, 1437an setiatu eta eraitsi zutena, Lope García de Salazar kronikariaren arabera. Aurkitutako lubakia XVII. mendearen bigarren erdian deuseztatu zuten. Hortik aurrera, espazioa gaur egun den bezala eratuz joan zen; plaza publikoko eremu zabal bat, aisialdiarekin eta jai-ospakizunekin lotutako mota askotariko gertaerentzako.



Zuloaren trazadura markatuta indusketen irudia.

LABURREAN




JON IRAZABAL

# “IHURRETA” 950 URTEKO ELIZATEAREN LEHEN AIPAMEN DOKUMENTALA

**1072ko abuztuaren 26an, Nafarroako Antso IV.a erregeak, Donemiliaga Kukulan (San Millán de la Cogolla) zegoela, monasterio horri eman zion Iurretako Dekaniako San Martinen erlikiak gurtzen ziren monasterioa (Amatzako San Martin)**

Dohaintza Iñigo López “Ezkerra” Durangoko kondeak eta 1072tik aurrera Bizkaiko lehen Jaunak [1.040/1.076] eta Toda Fortunez Ortiz de Aulestia bere emazteak berretsi zuten.

XI. mendearen bigarren erdian, Donemiliaga Kukulako monasterioak funts ekonomikoak behar zituen egiten ari zen lanak burutzeko. Komunitate monastikoaren hazkundeak beste monasterio handiago bat eraikitzera behartu zuen, Yusokoa, eta 1.053. urtean hasi ziren eraikitzen.

Donazioa Donemiliaga Kukulako Kodize Gotikoan erregistratu zen. Liburu hori XIX. mendeko desamortizazioen testuinguruan galdu zen, sasoi horretan monasterio errioxarrak izan zuen beste hainbat galerarekin batera. Baina, Donemiliaga Kukulako monjeek XIII. mendearen azken urteetan Becerro Galicano kodizea idatzi zuten, eta bertan Kodize Gotikoan aipatutako dokumentuak kopiatu zituzten.

Ohar historiko horren bitxikerietako bat da Iurretaren izena era ezberdinetan idazten dutela. 1072 dokumentuaren hasieran hau adierazten da: *“Sancti Martini de Ihurrieta, partis Bizcahia.”* eta, idatzi horretan bertan, *“confinio Duranci, cum decania, partis Bizcahie, nomine Ihurrueta, reliquias sancti Martini”*. Aldiz, 1075ean, 3 urte geroago, Donemiliaga Kukulako eta Abadiñoko abadea aurrez aurre jarriko dituen auzi-dokumentuan, Iurreta Hurrieta bezala izendatzen da.





950. urteurreneko ekitaldia / *Behean:* Amatzako baseliza.

LABURREAN




ERREDAKZIO TALDEA

# ARRIPAUSUETAKO GATAZKAREN AMAIERA

Bi urteko negoziazioen ondoren, URA agentziaren eta Durangoko Udalaren arteko akordio batek amaiera eman dio aurten Deabruaren Zubia eta Arripausuetako presa eraisteko saiakerak eragindako gatazkari.

Akordioaren arabera, zubia Zuhatzolako parkera eraman dute, hilerriaren ondora, eta han harriz harri berreraiki dute. Presari dagokionez, Iurreta udalerriari zegokion erdia eraitsi egin dute, eta Durangoko zatia mantendu. Iurretako Udalak ez zuen bere arau subsidiarioetan elementua babestu beharreko ondare modura jasotzen.

Josemari Uriartek, ASTOLA aldizkariko kide izandakoak, aldizkari honen 14. zenbakian durangarrek hainbeste maite zuten leku horri buruzko informazio historiko ugari bildu zuen.





Deabruaren zubiaren desmuntatzea eta zubia Zuhatzola parkean.

LABURREAN

IZASKUN ELLAKURIAGA

# DURANGALDEKO IKERLARI GAZTEAK

**Gerediaga Elkarteak lehenengoz antolatu du Ikerlari Gazteen Beka 2022an.**

Durangaldeko ondarea, historia eta gizarte gaien ikerketa, zaintza eta zabalkundea gazteen artean sustatzeko helburuarekin hasitako sariketa izan da, eta Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren laguntza izan du egitasmoak.

Guztira 36 lan aurkeztu dira lehenengo edizioan. Gehienek ikus-entzunezko formatua izan dute, eta bakarra izan da idatzizkoa.



Irabazleak eta antolatzaileak.

Peio Martin Estévez eta Ibone Gómez Tamayo gazteentzat izan da 16-18 urte arteko kategorian emandako bi sariak. “Elkarrizketa amamarekin” eta “Euskal bidaiariak” izeneko ikus-entzunezkoak izan dira sarituak. Eskualdera etorritako etorkinen errealitatea eta Durangaldeko hainbat leku esanguratsuetatik bidaia proposatzen dute lanek. Biak, Gerediaga Elkartearen youtube kanalean ikusi daitezke: https://labur.eus/ElkarrizketaAmamarekin eta https://labur.eus/EuskalBidaiariak.

Adrian Burgada Ereñok aurkeztu du idatzizko ikerketa lan bakarra, "Ibaizabal Ibaiaren Goi-Arroa, landa paisaia baten eboluzioa (1990-2020)". Hurrengo orrietan, aurkeztutako lanaren laburpen egokitua dago irakurgai.


ATXONDOKO
UDALA
www.atxondo.eus




**Okm:**
batzen gaituen
distantzia

abantaila
guztiak
hemen >

30€
urtean!

**Egin zaitez anbotokide!**

anboto
kide


40
60
60



Adrian Burgada Ereño | Txelu Angoitia

# LANDA

## PAISAIA BATEN EBOLUZIOA

Ibaizabal Ibaiaren Goi-Arroa (1990-2020)

Ikerlari Gazteen Beka 2022



Baserria Gazteluan.

Azken hamarkadetan paisaiaren inguruan landu diren hitzarmen desberdinek (Paisaiaren Europako Hitzarmena, Faroko Konbentzioa edo Cartagena de Indiaseko Paisaia Kulturalen Gutun Iberoamerikarra, besteak beste), paisaia kulturalak ondare adierazpen gisa definitu dituzte, ingurune fisikoaren konfigurazioak gizarte, kultura eta ingurumen balio handiko produktu historikotzat ulertuz, eta historikoki antropizatutako (gizakiaren ekintzak eraldatua) eremuetan prozesu ekologikoak eta naturalak mantentzea ahalbideratuz.

Atlantiar isurialdeko euskal kontestu geografikora hurbilduz, jatorri antropikoko belardi, labore, heskai, zuhaizti, eta basoez osatutako landazabal atlantikoa dugu, eta paisaia unitate honen kudeatzaile historikoa euskal baserria izan da.

Nekazaritzarako ustiategi eta etxebizitza zerbitzuak betetzen dituen landa-etxebizitza sakabanatutzat definitua, baserri terminoaren lehen erreferentzia 1258. urtean aurki dezakegu, eta hurrengo mendeetan bizi izan zituen etengabeko aldaketen ostean, 1970. hamarkadarako jada zaharkitutako nekazaritza-ustiapeneko unitatea bihurtu zen.

XXI. mendeko baserria, funtzionaltasun galera prozesu batean barrena dagoelarik, ekoizpen-funtzioaren eta etxebizitza-funtzioaren arteko bereizketa argi bateko testuingurura heldu da, gaur egun nekazaritza-ustiapeneko unitate zahar horietako askok funtzio bakarra betetzen dutelarik: bizitegi-funtzioa. Funtzio galera honen atzean hainbat faktore nabarmendu ditzakegu, haien artean, belaunaldi-aldaketa, hiri-eremuen aurrerapena eta merkatuen nazioartekotzea, eta fenomeno honek zuzenki kaltetu dio euskal landazabal atlantikoari.



Axpe, Atxondo.



Muntsaratzeko dorrea.

Paisaia unitate honen eboluzioaren azterketa Ibaizabal Goi-Arrora zuzenduz, Euskal Herrian gertatutako eboluzio berdina ikus dezakegu. Hamabost udalerriz osatua, Ibaizabal Goi-Arroaren eboluzio historikoa ibar-lineal honek aurkezten duen konfigurazio geografikoari estuki lotua egon da. Baserriaren eta bere landa paisaiaren ikuspuntutik, baliteke honen garapena Oiz mendiguneko hegoaldeko hegaletatik (Andikona, Garai, Goiuria, Sarria) zabaldu izana, non eskualdeko adibiderik zaharrenak aurki ditzakegun (XVI. mendea). Historikoki, baserriaren kokapena aukeratzerakoan, eguraldi txarraren aurkako borroka, faktore erabakigarrienetako bat izan da, eta eremu honek intsolazio maila altua eskaintzeaz gain, haran hondoen (laborantza lurrak) eta goialdeen (larreetarako eta baso aprobetxamendurako) arteko gune estrategikoa izango litzateke.

1950eko hamarkadararte, baserriak eta honek kudeatutako paisaiak protagonismo nabarmena zuten ibar-hondoetan, eta abeltzaintza-orientazioa zuen landa-sektore baten erakusgarri argia izanik, hiri eta industria azaleraren hedadura urria erakusten zuen. Hala ere, XX. mendearen bigarren erdialdeko gertakariek (AP-8 Behobia-Bilbo Autopista, industrializazio-prozesua, hiri-eremuen hedapena, pinudietara orientatutako baso mono-plantazioak) landa paisaiaren azaleran kalte handiak eragin zituzten, landazabal atlantikoa haranen hondotik urrun eta goratuta dauden zonaldeetara baztertuz.



**Izurtza eta Mañaria ingurua. 1946.** Ricardo Doliwa







**Ibaizabal Goi-Arroaren kokapen mapa.** Iturria: Egileak egindakoa GIS bidez.

## EAE-KO BASO INBENTARIOA 2005-2020




**Belardiak**

2005 2020

## EREMU URBANO-INDUSTRIALA



2005 2020




San Roke auzoa. Durango.

## CORINE LAND COVER 1990-2018

## EREMU URBANO-INDUSTRIALA




**Belardiak**

1990 2006 2018

1990 2006 2018

1990. urtetik gaur egunerarte, paisaia unitate honek izan duen murrizketa maila antzerakoa izan dela ondoriozta dezakegu, Corine Land Cover europar proiektuak eta EAEko Baso Inbentarioak aurkeztutako datuak aztertzen baditugu. Datuek errore maila badute ere (kartografiak ebazpen desberdinak erabiltzen ditu erabilitako satelite desberdinen pixel tamaina dela eta), belardiek %17ko galera izan dute azken 30 urteotan, eta honen mesedetan, eremu urbano-industrialak %13,7ko hazkundea eduki du, Corine Land Cover proiektuak eskuragarri dituen datuen arabera. Bestalde, 2005etik 2020ra EAEko Baso Inbentarioak jasotako datuak kontuan hartzen baditugu, bi paisaia unitate hauen eboluzioa antzerakoa izan dela bereiz dezakegu, hala nola, %6ko murrizketa belardietan eta %14ko hazkundea eremu urbano-industrialean. Emaitzek argi erakusten dute belardiek lurraldean duten murrizketa, batez ere hiriguneen kanpoaldean azpimarratu daitekeena.

Ibaizabal Goi-Arroa lurzorua ondasun mugatutzat duen lurralde baten garapenaren adibide argia izan da azken hamarkadetan, urbanizazio prozesu handia nabarmenduz. Guzti honekin, eta paisaia unitate honen eboluzioaren emaitzak mahai gainean direlarik, etorkizunean lurraldea antolatzeko tresnetan (LAG, LPP, LPS eta hiri-plangintza) oinarritutako ikerketek Ibaizabal Goi-Arroko landa paisaiari argia eman dieziokete.

**Adrian Burgada Ereño**
Geografoa. Durangaldeko
Ikerlari Gazteen bekaren irabazlea.



# 2022
# ERTIBIL BIZKAIA

**Bilbao**
**Rekalde Aretoa**
Uztailak 14 - urriak 16
14 julio - 16 octubre

**Basauri**
**Arizko Dorretxea**
Urriak 17 - azaroak 6
17 octubre - 6 noviembre

**Arrigorriaga**
**Euskaldunberri**
**Erakusketa aretoa**
Azaroak 7 - 27
7 - 27 noviembre

**Santurtzi**
**Casa Torre Jauregia**
Azaroak 28 - abenduak 18
28 noviembre - 18 diciembre

**Balmaseda**
**Horcasitas Jauregia**
2022ko abenduak 19 - 2023ko urtarrilak 8
19 diciembre 2022 - 8 enero 2023


ARGITALPENAK
PUBLICACIONES
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA
DENDA • PUNTO DE VENTA
Diputazio kalea 7, 48009 BILBAO
Tel: 944066968/944066969
Ordutegia • Horario: 08:30-14:00
(Astelehenetik ostiraletara • Lunes a viernes)
KATALOGOA • CATÁLOGO
www.bizkaia.eus/argitalpenak
Katalogoan 500 izenburu inguru kontsultatu daitezke, hainbat gairi buruzkoak
En el catálogo se pueden consultar alrededor de 500 títulos de temática variada.
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



Juanan Hernández | Txelu Angoitia

# LEOPOLDO ZUGAZA

## “HE TENIDO LA SUERTE DE CONOCER A LOS GRANDES GENIOS DE ESTE PAÍS”



Editor, historiador y promotor de múltiples proyectos culturales, Leopoldo Zugaza (Durango, 1932) acumula un impresionante curriculum. Impulsor de la Asociación Gerediaga y la Feria del Libro y del Disco Vascos, fundador del Museo de Arte e Historia de Durango, el PhotoMuseum de Zarautz la revista Gaiak y el Instituto Bibliográphico Manuel de Larramendi. La lista de premios y reconocimientos que atesora es apabullante, aunque cabe destacar la Medalla de Oro al Mérito en las Bellas Artes (2018) y el premio Gure Artea, concedido por el Gobierno Vasco. A sus 90 años, sigue implicado en proyectos culturales y sueña con crear un Museo de la Lengua y la Literatura Vascas, según explica en esta entrevista realizada en la librería Hitz de Durango, de la que fue fundador y propietario.

**Antes que nada, muchas gracias por atendernos.**

No tiene ningún mérito, yo creo que tenemos una obligación. Si queremos que la gente se informe de cosas que tengan interés, o que tengan poco interés pero que al lector le interesan, no debemos arrebatarle el derecho a enterarse. Ya desde Cicerón, conocemos que se atribuye a la senectud una obligación de transmitir el conocimiento para que éste se perpetúe.

**Por lo tanto, no hay mejor lugar para realizar esta entrevista que una librería, un lugar lleno de cultura.**

¡Y alguna burrada también! El papel desgraciadamente no tiene la culpa de las ideas peregrinas de algunos. Las librerías tienen un papel esencial en la vida de las personas, porque influyen en la adquisición de la sabiduría y estimulan el conocimiento. El conocimiento no solo es un archivo de memoria, influye en la forma de pensar; y la forma de pensar influye en la forma de actuar. Por eso me produce dolor el que la gente lea tan poco. Las librerías están cerrando, Durango es un caso especial: hay cuatro librerías en una población de 25.000 habitantes, pero en Gipuzkoa no hay ninguna desde San Sebastián a Mondragón, salvo Garoa en Zarautz. Uno se da cuenta al hablar con gente joven y plantear ciertas cuestiones, que no entienden lo que les estás diciendo. La base la dan la familia, las instituciones y la lectura. Si a esos proveedores de conocimiento les eliminas una parte, se quedan cojos.

“LAS LIBRERÍAS TIENE UN PAPEL ESENCIAL EN LA VIDA DE LAS PERSONAS, INFLUYEN EN LA ADQUISICIÓN DE LA SABIDURÍA Y ESTIMULAN EL CONOCIMIENTO.”



“YO DIGO QUE PATRIA, LA EXTENSA O LA PEQUEÑA PATRIA DE NUESTRO PUEBLO, ES LO QUE SE COMPARTE. Y SE COMPARTE LO QUE SE CONOCE. Y SE CONOCE LO QUE TE ENSEÑAN, PORQUE NADIE NACE SABIENDO.”

**Esta librería (la librería Hitz, el lugar donde se realizó la entrevista) en concreto tiene un significado especial para usted.**

Esta librería la abrí yo. Vengo de una familia de lectores. Mi hermano viene todos los días del año. Normalmente cada lector tiene su librería, aunque es conveniente visitar todas las que se pueda, porque es imposible que una sola disponga de toda la producción de libros actual. Hay temáticas que yo ni miro, como los libros de autoayuda. !Ya procuraré ayudarme a mí mismo!

Por eso las ferias del libro son importantes si están bien enfocadas. Debido a la gran cantidad de novedades que se publican, quedan ocultas obras anteriores que en su día no pudiste o quisiste adquirir. Espero si la salud me acompaña ir a la feria de libro antiguo y ocasión que se celebra en Octubre en Madrid.

**¿Y qué le parece la Azoka de Durango?**

Durante muchos años no he ido. Las condiciones de la feria son tan incómodas que uno no ve el libro, sino el cogote de las personas.

**Usted es el padre de la Feria de Durango. ¿Qué consejo le daría?**

Creo que hay un error y la culpa es mía. Cuando (Jose Luis) Lizundia me dijo que debía haber discos también, le dije que sí y metí la pata. El disco ha tenido un boom que de alguna manera ha minusvalorado al libro. Yo lo separaría. Haría una feria del disco y no me limitaría al disco vasco, sino que me abriría al disco universal. Pienso que los objetivos son fundamentales en cualquier acción, por eso muchas acciones, al no tener unos objetivos claros, resultan baldías. Si uno sale de casa para ir a Ondarroa, igual llega a Berriatua. Pero si uno sale a dar una vuelta, llegará al bar de al lado de su casa. El objetivo condiciona el método y el método es importante a la hora de transmitir.



"EL CONOCIMIENTO NO SOLO ES UN ARCHIVO DE MEMORIA, INFLUYE EN LA FORMA DE PENSAR; Y LA FORMA DE PENSAR INFLUYE EN LA FORMA DE ACTUAR. POR ESO TIENE UNA IMPORTANCIA CAPITAL EN LA VIDA DE LAS PERSONAS. POR ESO ME PRODUCE DOLOR EL QUE LA GENTE LEA TAN POCO."

**¿Recuerda los tiempos en los que se creó la Feria?**

Recuerdo que mi mujer (Carmen Miranda, fallecida en 2021) y yo estuvimos un mes entero recorriendo todo el país en busca de libros. Subí a Arantzazu solo a por un libro a donde (Luis) Villasante. Me dijo: "¿ha venido solo a por un libro?" Y le dije que sí, porque quería que 'Gero' estuviera en la Feria. No había interés por la cultura vasca. En los tiempos del 'difunto' (Francisco Franco), fui al Ministerio de Cultura en Madrid para conocer el estado de una solicitud que había presentado para poder editar. El funcionario que me atendió, un hombre joven, me dijo: "Haga usted lo que quiera, porque aquí la cultura vasca...(hace el gesto de una pedorreta con la boca)". Ahora tenemos muchas cosas en el ámbito cultural, pero parece que Bizkaia se ha reducido a Bilbao.

**¿Y por qué está ocurriendo eso? ¿Qué deberíamos hacer para revertir esa tendencia?**

Todas las cosas que he hecho han sido trabajos en equipo. Yo creé Gerediaga, soy el único que queda de los fundadores del Cineclub FAS y de Euskarazaleak. Soy el único que queda vivo. ¡Eso sí que es malo! Tengo un libro que compré aquí sobre las ausencias, echo en falta a muchos amigos con los que he compartido ilusiones culturales. Ahora he reunido a una decena de personas de Durango: escritores, pintores, restauradores, artistas, músicos, arquitectos... A la asociación le hemos puesto el nombre de 'Vector'. Su función no es hacer las cosas, sino promover que se hagan. Ahora, por ejemplo, tenemos la ilusión de tener un cineclub, no para que Vector lo lleve, sino para que la gente interesada en el cine de calidad, no comercial, se asocie y atienda a los aficionados de Durango o de Elorrio. Una cosa que no entiendo es que una población como Barakaldo, que es mayor que muchas capitales de provincia, no tenga una visita periódica de la BOS (Bilbao Orkestra Sinfonikoa).








**¿Y Durango?**

Pues en Durango, dos.

**¿Y cómo deberíamos reclamarlo?**

Si hay una Sociedad Filarmónica de Durango, puede ir y decir: tienen ustedes una delegación de Hacienda en Durango, convendría que tuvieran también una delegación musical. Algo adecuado a los intereses de la población y a la demografía, porque hay que adecuarse a la realidad, hay que pisar el suelo.

“CONVIENE VISITAR TODAS LAS LIBRERÍAS QUE SE PUEDA, PORQUE ES IMPOSIBLE QUE UNA SOLA DISPONGA DE TODA LA PRODUCCIÓN DE LIBROS ACTUAL. HAY TEMÁTICAS QUE YO NI MIRO, COMO LOS LIBROS DE AUTOAYUDA. ¡YA PROCURARÉ AYUDARME A MÍ MISMO!”

**¿Para eso sería necesaria una nueva gran infraestructura ?**

Yo no soy partidario de la centralización, es el enemigo de cualquier cosa. Sin embargo, la unión es la clave. En cierta ocasión en Madrid me dijeron: “¿no cree usted que en lugar de tener un museo de la fotografía en Zarautz debería haber un Museo Nacional?” ¿Por qué no lo hay? Porque esa pretensión de lo grande, lo único que consigue es que al final no haya nada. Todas estas iniciativas de carácter estatal no tienen la eficacia de lo que hacen cuatro chalados con la sensibilidad y capacidad necesaria. El objetivo de Vector es lo contrario. ¿A usted le gusta escribir? Hay que conseguir que alguien privado cree una librería. Y si le gusta el cine, ya hay un cine comercial.

**¿Estamos hablando de colaboración?**

De impulsar la creación de los instrumentos. Y que los que les apetezca participen en la gestión de esos instrumentos. Hubo un tiempo en el franquismo en que el Estado era todo. Cuando desaparece y se instala un nuevo sistema político, como ya tenemos el ayuntamiento y la diputación, la delegación en las instituciones oficiales ha originado que poco a poco los pueblos se vayan descapitalizando culturalmente. Al final, no hay ningún servicio cultural medianamente serio. ¿Por qué? El ayuntamiento está para otras cosas, para poner tuberías. Eso es lo que pienso.



**¿Así se podría revertir esa descapitalización de la que hablaba antes?**

¡Claro! Aunque seamos minoría. La cultura siempre es minoritaria. Al Coliseo Albia cuando era cine iba más gente que a San Mamés en un año, teniendo en cuenta que proyectaba tres sesiones al día. En San Mamés no juegan más de veinte partidos al año. Eso que vale una fortuna, ¡para veinte tardes! Y sin embargo el Coliseo Albia era gratis para el Ayuntamiento.

“ME PRODUCE DOLOR EL QUE LA GENTE LEA TAN POCO. LAS LIBRERÍAS ESTÁN CERRANDO, DURANGO ES UN CASO ESPECIAL: HAY CUATRO EN UNA POBLACIÓN DE 25.000 HABITANTES”

**¿Y dónde queda la colaboración entre el ámbito público y el privado?**

Otra cosa es que esas iniciativas privadas reciban apoyos oficiales. En el caso del cineclub, haría falta dinero para alquilar un local y conseguir las películas. Hacen falta cuotas muy elevadas o muchos socios. Calculamos que necesitaríamos unos 150 socios y ni siquiera el FAS tiene 100 asistentes a sus sesiones. Cuando hablamos con la alcaldesa de ahora de crear un cineclub, le explicamos lo que se necesita y nos dijo: “¿y si contáis con la ayuda del Ayuntamiento?” Esa es la clave: ayuda. Porque lo otro ya lo sabemos hacer. El ayuntamiento no dice quién es el delantero centro de la Cultural. El equipo somos los demás.



> “SI TUVIERA PRESUPUESTO ILIMITADO, ME SENTARÍA EN UNA MESA CON PAPEL BLANCO Y UN LAPICERO A PENSAR. PENSAR, UN OFICIO DEL QUE SE HA PERDIDO LA COSTUMBRE.”

**¿Cuál es la tarea más urgente que deberíamos acometer a escala local en el ámbito de la cultura?**

Lo primero es conocer nuestra propia historia. Tenemos un archivo que, después del de Bilbao, es el más importante de Bizkaia y uno de los más importantes de todo el País Vasco. El Archivo General de Navarra es riquísimo, porque ha sido un reino; esto ha sido una aldea y tiene lo propio de una aldea, pero muy importante.

Hace tiempo publiqué el Fuero, la Carta Puebla de Durango. Ahora quiero conseguir y publicar otro documento que hay en el archivo, un inventario parcial que refleja las fiestas que promovió el Ayuntamiento con motivo de la toma de posesión del emperador Carlos V. Hay detalles que son poco conocidos. El Arco de Santa Ana no tiene el escudo de Durango, es el escudo imperial. El de Durango son los tres arcos con el río, al que luego añadieron los lobos de la familia Haro. Todo eso enraíza. Yo digo que Patria, la extensa o la pequeña Patria de nuestro pueblo, es lo que se comparte. Y se comparte lo que se conoce Y se conoce lo que te enseñan, porque nadie nace sabiendo.

**Si ahora le concedieran un presupuesto ilimitado para poner en marcha algún proyecto, ¿qué haría?**

Lo que yo haría es sentarme en una mesa con papel blanco y un lapicero a pensar. Pensar, un oficio del que se ha perdido la costumbre. No se puede salir en tromba, porque luego no sabes por dónde seguir. Hay que planificar y la planificación requiere reflexión. Hay que hacer estadística, para saber lo que tenemos y lo que necesitamos. Tienes que hacer una selección de lo que tienes y de lo que no; después, una calificación de lo que puedes llevar a cabo, porque puede haber cosas interesantes que excedan nuestras posibilidades. Durango no puede organizar la Vuelta a España de bicicletas, pero puede organizar la Subida a Urkiola.





**¿Le queda algún sueño incumplido en el ámbito de la cultura?**

Muchos. Siempre he querido...(permanece unos segundos en silencio, pensando) es un sueño que ya no podré realizar, porque cada día tengo menos fuerzas. Una cosa que falta en este País y que sería un servicio de País sería un Museo de la Lengua y la Literatura Vascas. Dublín tiene el museo de Joyce. Hay muchos sitios que tienen museos de libros. La propia Biblioteca Británica es un museo. Y la Biblioteca Nacional de España tiene también un museo. En cambio, de lengua y literatura vasca no hay.

**¿Y ese museo se podría hacer en Durango?**

Por debajo de la pata en menos de un mes. Dame la carpa, que los payasos ya los pongo yo. Yo promoví con (Juan José) Ziarrusta (alcalde de Durango desde 2003 hasta su fallecimiento en 2008) la restauración de Muruetatorre (casa torre ubicado en el barrio Landako de Durango). Incluso se hicieron los planos de ampliación, están hechos, para construir otra cosa similar. ¿Hay una biblioteca en lenguas extranjeras en el País Vasco? No. Aquello se hizo para crear una institución que se llamaba Interjakintza, sobre Cultura Universal. Ahora estoy preparando una exposición sobre Dostoievkski. Si me deja el ayuntamiento, tengo ya unos 70 u 80 libros.

“ESA PRETENSIÓN DE LO GRANDE SÓLO CONSIGUE QUE AL FINAL NO HAYA NADA. TODAS ESAS INICIATIVAS DE CARÁCTER ESTATAL NO TIENEN LA EFICACIA DE LO QUE HACEN CUATRO CHALADOS QUE TIENEN LA SENSIBILIDAD Y CAPACIDAD NECESARIA.”

“TENGO UN SUEÑO QUE YA NO PODRÉ REALIZAR, PORQUE CADA DÍA TENGO MENOS FUERZAS. UNA COSA QUE NOS FALTA Y QUE SERÍA UN SERVICIO DE PAÍS ES UN MUSEO DE LA LENGUA Y LA LITERATURA VASCAS.”




**Sigue lleno de proyectos...**

Yo no entiendo a esos que dicen: cuando me jubile no haré nada. Pues para no hacer nada de verdad, ¡al camposanto! Yo no entiendo eso. (Joan Mari) Torrealdai y yo éramos amigos desde el año 50, cuando él andaba en pantalón corto. Él estaba de seminarista para franciscano en Arantzazu. Un día me dijo: ¿tú cuándo vas a parar? Y le dije: ¡cuando me pare la biología! Y eso es lo que espero, que me pare la biología. No sé si tardará o será pronto, más pronto que tarde por la edad que tengo.

**¿Algún proyecto en concreto?**

Quiero promover unos folletos de 16 páginas sobre detalles de Durango. Representaciones religiosas en las calles de Durango, la cruz, María de la O está ahí (señalando al Ayuntamiento, en cuyos soportales está el alto relieve de la Virgen de la Esperanza, datado en 1624), Fray Juan de Zumarraga. Un folleto para que la gente se entere del origen de todo eso. Y otro sobre las fuentes de Durango. ¿En cuántos pueblos hay tres fuentes monumentales como aquí, con delfines echando agua? Cuándo y por qué se construyeron, cuándo se hizo la traída de aguas...

**¿Qué recuerda cuando echa la vista atrás?**

He tenido una gran suerte: haber conocido a los grandes genios de este país: Don José Miguel Barandiaran, Don Manuel Lekuona, Don Julio Caro Baroja, Don Andrés Mañarikua, todos los fenómenos que hemos tenido. Don José Miguel era como una IBM. Y cuando don Andrés te decía algo, tenías que ir al diccionario para ver la asignación exacta de lo que había dicho. Caro Baroja fue otro genio. Le lees y dices: ¡cómo se puede saber tanto! Hay que pensar y hoy en día la gente no quiere pensar, tiene cansancio cerebral. Y es una pena.

**Juanan Hernández**
Kazetaria










ABADIÑO
ezagutu
Abadiño
Elizateko Udala
www.abadiño.org

TUMATXA!
GAZTEAK

www.tumatxa.eus

Gazte euskaldunei zuzendutako plataforma digitala



Korta bat neurtzen. Marrazkia: Imanol Larrinaga. *Sendo S.L. artxiboa.*

Josu Etxezarraga Ortuondo



## Herri-basoetako sail borobilen aztarnak Durangaldean

# KORTAK

# Zer da korta?

Gaur egun Bizkaia aldean baserrian abereak gordetzeko tokiari deitzeko erabiltzen den arren, beste esanahi bat ere badu korta hitzak. Gure mendietan Kortazar, Kortabarri, Ganekogorta, Beagorta, Akerkorta eta abar izeneko lekuak zerutik ikusiz gero, litekeena da borobil formako sailak begien bistan agertzea. Paisaian ageri diren zirkulu hauek, ekialdean, sarobe edo saroi izena hartzen dute eta, esan bezala, mendebaldean, korta. Horrela, 1398an, Ziortzako kolegiatak zituen sarobeen artean, Askasigorta izenekoa agertzen zaigu eta, beraz, XIV. mende amaieran hitz hori, agian beste batzuekin batera, errealitate hau izendatzeko erabiltzen zen.

Berez, Julio Caro Baroja antropologoari eta Joaquin Gorrochategui filologoari irakurri diegunez, berba hori latinezko cohorsetik omen dator eta honek "itxitako eremua" esan nahi du. Izan ere, kortak mugarik gabeko eremu zabaletan sailak sortzearen ondorio dira, hau da, hutsetik perimetro berria sortzearenak.

Korten formari dagokionez, nahiz eta laukizuzen oinplanoa dutenak badiren (Artikutzan, Nafarroan, adibidez), orokorrean borobil formakoak dira edo, eskematikoki agertzeagatik, poligono formakoak. Nola egiten zituzten eremuok? Bada, erdigunean erreferentzia nagusia ezartzen zen, sendo lurrean jarritako harria, haustarria izenekoa. Aro Berritik heldu zaizkigun agirien arabera, baziren sailok neurtzen zituzten perituak: haustarrien gainean konpasa edo brujula jarrita, gainean zizelkatutako markak baliatuz askotan, soka edo pertikaz neurtzen zuten erradio jakin bat. Iruzurrak ekiditeko inguruan ere harriak ezartzen ziren, baztermugarriak, ikusteko moduan, kortaren azalera zehatz zein zen jakiteko.



**Letonakorta Urkiolamenditik.** Txelu Angoitia.

Horregatik, zenbaitetan perimetro borobila zena, zenbat bazter mugarri, hainbeste aldeko poligono bihurtu da.

Neurriei dagokienez, 150m inguruko diametrotik hasi eta 600dik gorakoak ere baziren. Abeltzantzarako erabiltzen zirenen artean negukoak eta udakoak bereizten ziren, lehenak handiagoa zirelarik. Neurri hauei buruz ikus Luis Mari Zalduaren lanak.





Es a principios del siglo XX cuando en las actas del ayuntamiento de Durango, se observa una proliferación en la construcción de lavaderos, que se alargará hasta mediados del mismo siglo y que coincide con la preocupación de la administración por la higiene y salud pública de la villa. Uno de los ejemplos más claros lo encontramos en una de las actas del año 1909, donde hay una referencia al levantamiento de un lavadero municipal que iba a ser emplazado en la calle Santanoste, y para el cual tuvieron que recoger aguas provenientes de la presa para poder poner en funcionamiento el lavadero.

AFORTUNADAMENTE SE HAN CONSERVADO UNA SERIE DE LAVADEROS QUE MERECEN TODA NUESTRA ATENCIÓN Y CONSIDERACIÓN



**Lavadero en San Roke.** Autor desconocido.




Proyecto de lavadero en Santanoste. Archivo Municipal de Durango.




Aquellos que se han conservado hasta nuestros días, en su mayoría públicos, los podemos ver a lo largo del entramado urbano de Durango. Por ejemplo, el lavadero situado junto a la Torre Lariz, actual Andragunea (Casa de la Mujer), utilizado por mujeres que hoy describen con detalle sus jornadas lavando en este emplazamiento. A su vez, sigue en pie el conjunto de lavaderos de Barrenkalea y Andra Mari fechados aproximadamente a comienzos del siglo XX, en este caso, de carácter privado. Están ubicados en el Casco Histórico de Durango y se emplazan en los bajos de los edificios, siguiendo el cauce fluvial del río Mañaria. Cabe señalar la distribución lineal que presentan estas construcciones, aspecto que los destaca de otras edificaciones más comunes como, por ejemplo, los lavaderos exentos, tripletas o techados.

El lavadero ubicado tras el Palacio Garai conserva las mismas características que el que se encuentra en Faustekalea, pues ambos coinciden en la fecha de su ejecución, 1895. Por su estructura y dimensiones, cabe la posibilidad de que fuera un conjunto tripleto en el que durante un tiempo convivieran de manera ordenada fuente, lavadero y abrevadero. En la actualidad se encuentran en perfecto funcionamiento y desempeñan la función de fuente de agua potable para el consumo de los transeúntes.

Prosiguiendo con los ejemplos, otro de los más paradigmáticos sería el de la fuente de San Roque, que en la actualidad se conserva junto a la ermita de San Pedro de Tabira. El proyecto de cimentación de esta fuente se gestó en 1893 y fue auspiciado por los propios vecinos de la zona, comenzando su incipiente colocación en frente de la ermita de la Vera Cruz de la calle Kurutziaga. Años después se decidió trasladarla a la plaza Balbino Garitaonandia, frente a la actual Herriko Taberna, y posteriormente al barrio de San Roque, lugar en el que se colocó un lavadero.




Las fuentes orales, corroboran la existencia de lavaderos en el barrio Madalena y en San Fausto. Con sus recuerdos y nostalgias, recalcan las grandes dimensiones de estos lavaderos, ya que estaban destinados a cubrir los servicios de toda una barriada. Lamentablemente, en torno a estos últimos no se han encontrado, a menos de momento, mucha documentación bibliográfica, ni tampoco se tiene constancia de fotografías que nos puedan mostrar cómo eran estructuralmente estos espacios.




Lavadero de Fauste kalea.



Casas y lavaderos en el río Mañaria.



Lavadero en Durango. Eulalia Abaitua.

# EL ESPACIO PÚBLICO DE LAS MUJERES

Durante muchos años, se ha considerado que el lugar y el rol de la mujer debía permanecer ligado a la realización de las tareas del hogar y al cuidado de los integrantes de la familia, desde el comienzo del día hasta la puesta de sol. Por ello, la presencia de la mujer en el ámbito público se ha visto muy condicionada y restringida a ciertos ámbitos, mientras que por el contrario los hombres, gozaban de libertad y podían hacer gala de ella acudiendo a diversos lugares de ocio en los que se producían los encuentros sociales.



**Colegio de San Antonio.** Autor desconocido.

«AUNQUE POR NORMA GENERAL LAS MUJERES DEBÍAN PERMANECER EN CASA, SE DABAN OTROS ESPACIOS EN LOS QUE LA MUJER SÍ QUE PODÍA RELACIONARSE CON OTRAS MUJERES DE SU MISMA CONDICIÓN».

Por una parte, nos encontramos con las iglesias y los mercados de pueblo y, por otra, las fuentes y, muy especialmente, los lavaderos. En estos últimos, además, la presencia del hombre era impensable, y en muchos lugares estaba completamente vetada, algo que desde luego favorecía las conversaciones sin censura y colmadas de ese aire de libertad que no se les otorgaba en otros espacios.

De esta manera, podemos afirmar que los lavaderos fueron espacios creados única y exclusivamente para la mujer. Lugares a los que solo podían acceder ellas y las lavanderas de oficio a lavar, y, en cualquier caso, juntoa sus hijos. En ellos se intercambiaban vivencias y conocimientos, se generaban tertulias y resultaron ser verdaderos lugares de desahogo para las mujeres. En los lavaderosversabansobre asuntos familiares o temas que no podían hablarse en otro contexto, se ponían al día de las noticias locales y se forjaban amistades.

Además del sociológico, estos emplazamientos guardan un valor etnográfico, pues en ellos se encuentra el origen de un argot relacionado exclusi-



vamente con la tarea del lavado. Expresiones como *"lavar los trapos sucios"* que estaba ligado a aspectos íntimos, o por ejemplo *"cuidado que hay ropa tendida"* para avisar de que no se puede hablar de algo por la presencia de niños o la de alguien indeseado. Ana Mari Alonso, una de las usuarias del lavadero de Tabira, recuerda como se creaban canciones en torno a los lavaderos y el lavado de ropa, y se cantaban mientras esperaban su turno para lavar.

Para poder llegar a entender la dimensión que suponían de estos espacios para el día a día de la mujer, no podemos olvidar que, en ocasiones, aunque no era lo común, los lavaderos también fueron un foco de riñas para ellas, ya que había quien tenía preferencia por ponerse en una zona u otra porque de ello dependía la calidad del lavado de las prendas. También solían conversar sobre las injusticias de los oficios que desempeñaban, y esto servía para posteriormente realizar protestas para exigir mejoras en estas infraestructuras y en las condiciones de trabajo en el caso de las lavanderas de oficio.

Resulta sorprendente y un tanto contradictorio, el hecho de que muchas de las mujeres que hicieron uso de los lavaderos disocien la dureza de esta tarea acordándose con cierta nostalgia del buen ambiente que se generaba en estos lugares. En definitiva, los lavaderos se convirtieron en un espacio donde las mujeres trabajaban en sororidad, donde podían ser ellas mismas y donde también, pudieron sentirse libres.

**Nerea Gastón Tabera**
Historiadora del arte



Puente de San Agustín.





# Barruko ibilbideak

Txelu Angoitia

Bost gonbidatuek barruko bidezidorretatik eramango gaituzte, sakoneko bidexka apaletatik.

Paisaia ikusgarriak alde batera utzita, leku xumeetara eta intimoetara begiratzeko gonbitea egiten digute, eurentzat oso bereziak diren bazterretara gerturatzeko keinua.

Sarritan bakoitzaren haurtzarora egiten dute bidaia. Rilke poeta handiak esan zuenez, horixe omen da "gure aberri bakarra".

Munduko lekurik kutunena denez, euren burua horra loturik dago. Leku hori gure jatorria izango da urliarentzat; helmuga sandiarentzat; eta ametsen lurralde hauskorra berendiarentzat.

Ale honetara ekarri ditugun gonbidatuentzat toki horiek Durangaldean daude.




















# MAITE BERRIOZABAL

## Angio auzoa. Elorrio.

Mendian gora doanak tontorra izaten du helburu eta presaka doanak helmuga. Paseatzea, aldiz, ibiltzea da. Erritmo mantsoago edo biziagoan, inora heltzeko asmo barik, hankei eragitea. Baserri inguruen batetik pasatzean, soloan jo eta su lanean, edota belar fardoak traktorera altxatzen dabiltzanei begira gelditzen naiz. Ikusiko banindute beharbada zera pentsatuko lukete: "Zer zentzu izan dezake motibo barik nekatzera irteteak?".

Buruari eragiteko tartea izaten da niretzat ibiltzea. Buruari eragin, baina bururik berotu ez. Oinez ibiltzeak parentesi bat zabaltzen du abiaduran. Geldi egon beharrik gabe moteltzen du bizitzako eginbeharren martxa. Eta bien bitartean, bururatzen zaizkizun ideiak sakelakoan idatz ditzakezu, testutxo hau bezalaxe.







# ARITZ LASARGUREN

## Momoitio. Garai.

Momoitioko harresian haritzaren gerizpean eseri eta bertatik Durango eta inguruak begiratzea gustatzen zait.

Mendien artean urrun bezain txiki antzematen da Durango, naturako zein inguruko animalien hotsek are urrunago sentiarazten naute, postal bizi bati begira egongo banintzateke bezala.

Bizitzaren erritmo bizia eteten dela sentitzen dut bertan, egunerokotasunak dakarren errutinatik abstraitzea lortzen dudala, distantziak ematen didan ikuspegi berriak orainaren gaineko kontzientzia berreskuratzen laguntzen nauela, bizitzari "reset" bat egin ahal izateko.





# MILA VILLA

## Iguria. Elorrio.

Garai bateko emakumeentzat
lan eta topagune izan ziren garbitokiak.

Pandemia garaian gure herrietako hainbat bazter
ezagutu ditugu eta haien artean garbitokiak.

Guretzat, gure ibilbideetan atsedena
hartzeko toki kuttunak izan dira.



# PELLO MUGARZA

## Goita. Mallabia.

Hiru elementu nabarmentzen dira auzoaren erdigune honetan: ermita, eskola eta zumar arbola. Inguru honetan egin genituen gure lehen olgetak, hemen ikasi genituen lehendabiziko letrak (erderaz, hori bai). Hemen hazi eta hezi ginen. Elizak, eskolak ez bezala, euskeraz hitzegiten zigun.

Gaur, eliza itxita dago eta eskola elkarte bihurtua.

Zuhaitza da bere izateari eusten dion bakarra. Iragandako bizimodu baten lekuko.



## KRISTINA MARDARAS

### Zugatzabekobarri baserria. Oromiño.

Hemen sortu ninduten.
Hemen sortzen dut.
Egunak, eguna dakar.
Eta gaua, atsedenerako tartea da bidean.
Oilarrararen kantuak iratzartzen du gure eguna
eta txorien dantzak mogimendua arindu.
Honi, lur usaina dario eguratsean.
Idak, hurrengorarte diotso udazkenean.
Errekako urak bere bidean darrai.
Eta nik, natura laztantzen dut, ixilean.




NATURA
ETA KULTURA
ONDAREA
BERRESKURATZEN
BERRIZ
www.berriz.eus
berrizko
UDALA

AZTERLAN

MEMBER OF BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE



# Martxoak 31
# Durango

Jimi Jiménez | Txelu Angoitia / Archivos

La tragedia que sufrió Durango con los bombardeos del fatídico día 31 de marzo de 1937 y siguientes quedó reflejada en el libro del cementerio local. Siempre según éste, a partir de las 84 víctimas enterradas en fosas comunes del cementerio de Santikurutz, los colectivos Gerediaga Elkartea y Durango 1936 Kultur Elkartea, junto con el Ayuntamiento de la villa, iniciaron una investigación documental y familiar. En este registro la mayor parte de estas 84 personas carecía de nombre y apellidos, y en el mejor de los casos un apodo o una detallada descripción aludía a la persona inhumada. Tan solo era conocida la identidad de 30 de víctimas que era obligado corregir, pues el género, nombres, apellidos o procedencias de estas personas no eran los correctos.



# La inhumación

En todo desastre que genera víctimas mortales la tónica más común es su inhumación en fosas comunes. Este recurso puede responder a diferentes condicionantes, como el estado de los cadáveres, la no identificación o reclamación de éstos o un contexto complejo y urgente como el sufrido por la villa tras el primer bombardeo, al que siguieron más ataques durante las siguientes horas y por lo tanto un terror generalizado.

Por otra parte, es necesario considerar la tipología de las gentes que vivían de una forma más o menos estable en la villa. Por su ubicación, Durango se convirtió en un importante enclave tanto civil como militar. Hacia marzo de 1937 Durango había incrementado su población, con una gran cantidad de personas procedentes de Gipuzkoa desplazadas por los avances de la guerra. A esta población civil se unía un gran número de combatientes. El ejército vasco aprovechó de manera obligada tanto la proximidad de la villa a los diferentes sectores de los frentes de guerra como la facilidad de traslado de las tropas y su abastecimiento por carretera o ferrocarril. A esto se unía un tercer elemento, el hecho de que los mercados de la villa fuesen destino para muchos productos del entorno.



Cementerio de Durango.

Estas tipologías son las que sufrieron los efectos de los bombardeos de 31 de marzo. Bombardeos que se sintieron más allá de las mugas de Durango, afectando a localidades como Elorrio u Otxandio. En su estudio sobre los bombardeos en Euskadi, el historiador Xabier Irujo diferencia los bombardeos puramente de terror contra núcleos urbanos (Durango, Elorrio y Otxandio) de aquellos otros, cuyo objeto era más táctico o estratégico. Estos últimos estaban directamente relacionados con objetivos militares, como tropas, fábricas, carreteras, montes etc. Los bombardeos ocurridos en Durango los días 31 de marzo y primeros días de abril de 1937 cumplen ambas premisas: de terror, tácticos y estratégicos, y han sido ampliamente detallados y estudiados por Jon Irazabal.

Este artículo se centra en las víctimas que murieron por causas directas del bombardeo y que fueron anotadas en el libro de enterramientos del cementerio de Durango, al ser una parte de las páginas arrancadas a este libro-registro, que actualmente se halla en paradero desconocido.

Las hojas arrancadas al libro-registro cementerial corresponden a un total de 16, referidas a las inhumaciones realizadas en el cementerio de Durango entre el 7 de octubre de 1936 y mayo de 1937. Por lo tanto, el listado anónimo y mecanografiado que llegó a manos de J. Irazabal, bien podría ser una copia-extracto de las personas inhumadas con motivo de los bombardeos de Durango del 31 de marzo y primeros días de abril de 1937. Las páginas ausentes han generado un desconocimiento absoluto sobre la dinámica del cementerio, afectando no solo a las víctimas de los bombardeos sino también a la historia de un pueblo durante meses.








Imagenes del bombardeo de Durango.



Intervención artística en Andra Mari sobre el bombardeo de Durango.



# Listas, informes y otros

Los bombardeos del 31 de marzo de 1937 y sus víctimas no pasaron desapercibidas para la prensa y para los servicios de propaganda tanto del Gobierno Vasco como del gobierno franquista. El gobierno autónomo hizo públicos, sin una fecha concreta, los datos oficiales del bombardeo contra la población de Durango a partir de unas listas con 91 víctimas que murieron en el hospital civil de Bilbao, a las que se fueron añadiendo las personas heridas que ingresaron en éste y en otros centros.

La primera relación fue la estrictamente anotada en el libro del cementerio de Durango por la que fueron inhumadas en el cementerio de Santikurutz de Durango 127 víctimas. Las causas de muerte fueron debidas tanto a los efectos directos del bombardeo como aquellos otros enterramientos de víctimas procedentes de las trincheras vascas del frente de Otxandio. En dicha relación se mencionan 84 enterramientos en fosas comunes y los 43 restantes en panteones y sepulturas.

Tiempo después, el Gobierno Vasco editó un folleto denunciando internacionalmente el horror vivido en la villa. En dicho folleto se hacía público un nuevo listado, elevando el número de víctimas a 165.

También en abril-mayo de ese mismo año el Gobierno Vasco hizo público un informe-denuncia sobre la intervención germana en la guerra. En el mismo se mencionan los 127 enterramientos en el cementerio de Durango.



Homenaje a las familias de las víctimas. 31 de marzo de 2022.

# La búsqueda familiar y documental

Como se ha mencionado anteriormente, la base de esta investigación ha sido el listado de 84 personas inhumadas en fosas comunes en el cementerio de Durango. Todos estos enterramientos comienzan con lo que se supone es el número de enterramiento. Esta numeración es correlativa, la fosa común I que abarca los números desde el 1 al 42 y la fosa común II, desde el número 43 al 84. Hasta el momento se han identificado 52 de estas personas, siendo imposible localizar identidades recurriendo únicamente a la mencionada relación. En la misma existen enterramientos donde dice textualmente "imposible de identificar", "un miliciano de Ochandiano" o "placa de identificación n.º XX", mientras que en otros casos se menciona el sexo o la edad aproximada de la víctima.



Vista aerea del bombardeo de Durango.

A partir de los nombres de las personas identificadas y otras informaciones se inició la búsqueda de sus descendientes. Esta tarea no es fácil si se tiene en cuenta que de las 52 identificadas, 27 personas no eran de Durangaldea. Estas personas (gudaris, refugiados, etc.) procedían de diferentes lugares y se hallaban temporalmente en Durango.




GOBIERNO PROVISIONAL DE EUZKADI

Documentos relativos a la guerra civil

La INTERVENCIÓN de ALEMANIA

en favor de Franco

en las operaciones del territorio vasco.

Núm. 4

Las personas enterradas en fosas que han sido identificadas hasta la fecha son las que siguen y la numeración corresponde al orden de enterramiento y a la identidad de la víctima.

Para localizar datos sobre todas estas personas, además de la información aportada por las familias, se procedió a la búsqueda documental para conseguir el máximo número posible de identidades y sus familias. Para recopilar esta información se consultaron diferentes archivos y registros. Archivos como los municipales, el Histórico Foral, el Histórico de Euskadi, el Histórico Provincial de Bizkaia, el Histórico Eclesiástico de Bizkaia o el Centro Documental de la Memoria Histórica de Salamanca, registros civiles y bases de datos como la de Gogora, Instituto de la Memoria y entidad dependiente del actual Gobierno Vasco, han sido fundamentales para este estudio.



Homenaje a las familias de las víctimas. 31 de marzo de 2022.

| NOMBRE | APELLIDOS | EDAD | ESTADO CIVIL |
|---|---|---|---|
| Luis | Altuna Aberasturi | | CASADO |
| Concepción | Andrade Loma | 11 | |
| Pablo | Areitio Cuesta | 50 | CASADO |
| María Cruz | Arroyo Majadas | 60 | SOLTERA |
| Martín | Astarloa Zubia | 24 | SOLTERO |
| José | Aulestiarte Icaran | 69 | VIUDO |
| Mauricio | Ayestaran Elustondo | 46 | CASADO |
| Pablo | Azcarragaurizar Uribarren | 22 | SOLTERO |
| Anselma | Barrueta Urcelay | 68 | SOLTERA |
| Eduardo | Blanco Ramos | 25 | SOLTERO |
| Florencio | Bilbao Guerediaga | | |
| Marcos | Cengotitabengoa Mendicoechea | 24 | SOLTERO |
| Ricardo | Creso Ayerra | 20 | SOLTERO |
| Teodoro | Domínguez Macías | 42 | CASADO |
| Carmen | Ereño Canales | 66 | VIUDA |
| Feliciano | Errasti Elgoibar | 44 | CASADO |
| Marcelina | Fernández Pérez | 71 | VIUDA |
| Carmen | Fuertes Alonso | 2 | |
| Concepción | Gago Raposo | 19 | SOLTERA |
| Marcelino | García Romeral | 67 | CASAAO |
| Arturo | Gómez Fernández | 42 | CASASO |
| José Ignacio | Irazabal Madariaga | 55 | CASADO |
| Vicente | Larrinaga Güenechea | 37 | CASADO |
| Sebastiana | Larrinaga Iruri | 78 | SOLTERA |
| Florentina | Lariz-Zubi-Erementeria Leaniz-Beascoa | 68 | |
| Juan | Lezama Larrea | 20 | SOLTERO |
| Caridad | Lezamiz Pérez | | |
| Dulce María | Lezamiz Pérez | 5 | |
| Victoriano | Lizarriturri Barrutia | 11 | SOLTERO |
| Ignacio | Lombide Alberdi | 46 | CASADO |
| José Antonio | Luengas Lapeña | 27 | CÉLIBE |
| Regino | Mateo Raposo | 7 | |
| Marcelino | Merino Rasines | 21 | SOLTERO |
| Justo | Ochotorena Muguerza | 38 | SOLTERO |
| Balasi | Olea Garaita | 3 | |
| Daniel | Olea Garaita | 7 | |
| Nicasio | Pérez Argoitia | 50 | |
| Ricardo | Redondo Mariscal | 35 | CASADO |
| Avelino | Rico García | 42 | CASADO |
| Pablo | Rolloso Alvarez | 19 | SOLTERO |
| Ángel | Santillana Madrid | 19 | SOLTERO |
| Vicente | Santisteban Abascal | 21 | SOLTERO |
| Ángel | Suárez Echevarria | | |
| Luis | Tellitu Belausteguigoitia | 25 | SOLTERO |
| Nicolás | Uriarte Unamuno | 26 | CASADO |
| María Teresa | Uriarte Urriolabeitia | 1 | |
| Victoria | Urriolabeitia Uribe | 27 | CASADA |
| Eugenio | Vergara Gutiérrez | | |
| Victoriana | Zabaleta Ormaechea | 66 | VIUDA |
| Carmen | Zaldivar Goicoechea | 15 | |
| Amando | Otero Cereceda | | |
| Antonio | Iñarritu Acha | | CASADO |

| NATURALEZA | RESIDENCIA | TIPOLOGÍA | Nº ENTERRAMIENTO | FOSA |
|---|---|---|---|---|
| | Durango | Zibila | Nº 29 | FOSA I |
| BURGOS | Durango | Zibila | Nº 61 | FOSA II |
| BILBAO | | Zibila | Nº 52 | FOSA II |
| BÉJAR (Salamanca) | Durango | Zibila | Nº 37 | FOSA I |
| MALLABIA | Mallabia | Gudari | Nº 65 | FOSA II |
| MARKINA-XEMEIN | Durango | Zibila | Nº 77 | FOSA II |
| DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN | | Zibila | Nº 28 | FOSA I |
| ELORRIO | Elorrio | Gudari | Nº 81 | FOSA II |
| ABADIÑO | Durango | Zibila | Nº 79 | FOSA II |
| FRÓMISTA (Palencia) | Erandio | Gudari | Nº 17 | FOSA I |
| AMOREBIETA | Amorebieta | Gudari | Nº 47 | FOSA II |
| ELORRIO | Elorrio | Gudari | | |
| BILBAO | Bilbao | Gudari | Nº 54 | FOSA II |
| DURANGO | Durango | Zibila | Nº 82 | FOSA II |
| TURTZIOZ | Durango | Zibila | Nº 41 | FOSA I |
| ETXEBARRIA | Eibar | Zibila | Nº 6 | FOSA I |
| FERROL (A Coruña) | Durango | Zibila | Nº 30 | FOSA I |
| MADRID | | Zibila | Nº 60 | FOSA II |
| BELVER DE LOS MONTES (Zamora) | Aretxabaleta | Zibila | Nº 4 | FOSA I |
| ARANDA DE DUERO (Burgos) | Donostia | Zibila | Nº 27 | FOSA I |
| SAN ESTEBAN (Ourense) | Durango | Zibila | Nº 78 | FOSA II |
| MUNITIBAR-ARBATZEGI GERRIKAITZ | Durango | Zibila | Nº 80 | FOSA II |
| MALLABIA | Mallabia | Zibila | Nº 1 | FOSA I |
| DURANGO | Durango | Zibila | Nº 62 | FOSA II |
| ABADIÑO | | Zibila | Nº 45 | FOSA II |
| BALMASEDA | Bilbao | Gudari | Nº 49 | FOSA II |
| | | Zibila | Nº 71 | FOSA II |
| | | Zibila | Nº 70 | FOSA II |
| EIBAR | Eibar | Zibila | | |
| DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN | Donostia | Gudari | Nº 31 | FOSA I |
| DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN | Durango | Religioso | Nº 10 | FOSA I |
| BILBAO | Durango | Zibila | Nº 58 | FOSA II |
| DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN | Donostia | Gudari | Nº 57 | FOSA II |
| ATALLU (Nafarroa) | Atallu (Nafarroa) | Gudari | Nº 55 | FOSA II |
| DURANGO | Durango | Zibila | Nº 63 | FOSA II |
| DURANGO | Durango | Zibila | Nº 64 | FOSA II |
| MARKINA-XEMEIN | | Zibila | Nº 34 | FOSA I |
| ARCOS DE LA LLONA (Burgos) | Barakaldo | Gudari | Nº 67 | FOSA II |
| SEGOVIA | Bilbao | Gudari | Nº 66 | FOSA II |
| ZALLA | Zalla | Gudari | Nº 9 | FOSA I |
| GRANJA DE SANTIUSTE (Burgos) | Donostia | Gudari | | |
| KARRANTZA | Karrantza | Gudari | Nº 53 | FOSA II |
| ELGOIBAR | Elgoibar | Gudari | Nº 14 | FOSA I |
| DURANGO | Iurreta | Gudari | Nº 44 | FOSA II |
| DURANGO | Durango | Gudari | Nº 73 | FOSA II |
| DURANGO | Durango | Zibila | Nº 74 | FOSA II |
| KORTEZUBI | Durango | Zibila | Nº 75 | FOSA II |
| DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN | | | Nº 26 | FOSA I |
| GARAI | Iurreta | Zibila | Nº 7 | FOSA I |
| DURANGO | Durango | Zibila | Nº 76 | FOSA II |
| | | Gudari | | |
| | Durango | Zibila | | |



# La búsqueda de las fosas

**Durante varios días de febrero un equipo técnico de Aranzadi Zientzia Elkartea realizó una prospección en el cementerio municipal en diferentes puntos de los patios o zonas de San Vicente y Santo Tomás. Con ayuda de medios mecánicos, fueron verificados aquellos lugares donde las informaciones situaban los enterramientos correspondientes al día del bombardeo. Los resultados de esta búsqueda fueron en todos los casos negativos y no se pudo recuperar ninguna evidencia de aquellas inhumaciones. La explicación más lógica, a partir de los tres casos en los que las familias recuperaron los restos de sus allegados muertos el 31 de marzo en los años 40, es que el terreno que ocuparon estos enterramientos "comunes" se liberara diez años después para posibilitar nuevos enterramientos.**



Prospección de la asociación Aranzadi en el cementerio de Santikurutz.
Aranzadi Zientzia Elkartea



Momento del homenaje a los familiares de las víctimas. 31 de marzo de 2022



# Las conclusiones

A partir del estudio realizado, de estas 52 personas identificadas y enterradas en el cementerio municipal solamente se ha podido localizar la familia de 30 de ellas. La diferente tipología de las personas que aquel 31 de marzo estaban en Durangaldea se ve mínimamente representada en las fosas comunes y arroja ese dato de 26 personas foráneas y 26 de la villa o sus alrededores.

Finalmente, como en casi todos los bombardeos contra núcleos urbanos la mayor parte de las víctimas fueron personas que nada o poco tenían que ver con las acciones bélicas. De esta forma 31 de las víctimas en Durango eran civiles mientras que otras 21 personas inhumadas en las fosas comunes eran combatientes.

**Jimi Jiménez**
Historiador e investigador.
Durango 1936 K.E.


Garai
www.garai-udala.eus


Mañariko udala, alkarregaz


MALLABIA
AUKERAN, EUSKARAZI
www.mallabia.eus

Otxandio
biziguraz betie

Durangaldean bizi garenok ez dugu gure inguruko paisaiaren edertasuna zalantzan jartzen. Kanpotik datozenak txundituta gelditzen dira baserri zuri teila gorriez zipriztindutako gure baso eta landen koloreekin eta baita mendizerra  gris biluziak erditik moztutako paisaiarekin ere. Azken mende erdian jatorrizko paisaian irekitako zauriek, gero eta handiagoak badira ere, ezin izan dute inguruaren edertasuna guztiz itzali.

Baina, nondik datorkio edertasuna? Azaleko koloreak zuhaitz eta landareenak dira, eta baita gure arbasoen jakinduria eta ohituren aztarna diren baserriena ere; baina bata zein bestea askoz zaharragoa den oinarri baten gainean dagoen azala baino ez dira. Azala harramazkatuz, azpitik dituen arroketan bilatu beharra dago gaur eguneko erliebearen izatearen arrazoia: Anbotoko mendizerra biluziaren harrokeria, Urkiolamendiko borobiltasun berdea, Arrazola ezkutatzen duen bailara estuaren diskrezioa, edo herri handienak kokatuta dauden haran ireki oparoak.

Arturo Apraiz

# DURANGALDEKO PAISAIA ZORAGARRIAREN AZPITIK





Geologiak baldintzatutako erliebea.




**2. IRUDIA .** Erliebearen arrazoia substratuko arroketan dago. Durangaldeko mapa geologiko sinplifikatua hiru dimentsiotan.






**3. IRUDIA**

Errudisten azaleramenduak Anbotoko mendizerran eta errudisten irudi eskematikoa.

Erliebea ulertzen laguntzeaz gain, arrokek beste hainbat istorio ere gordetzen dituzte, milioika urteetan idatzitako istorio motel bezain interesgarriak. Datozen lerroetan, horrelako bat kontatuko dizuet, baina ez nik asmatutakoa, zientziaren bitartez geologiak erakutsitakoa baizik.

Anbotoko mendizerrak eta hegoaldera Urkiola-menditik Saibiraino, zein iparraldera Zumalegi eta Ibaizabal ibaietaraino hedatzen den lurraldeko arrokek ezkutatzen duten bilakaera geologikoaren zati bat kontatuko dut. Lurralde horretako mapa geologikoan bi dira batez ere bereizten diren koloreak (2. irudia). Alde batetik, kolore berdekarek izaera karbonatoduna duten arroka desberdinak adierazten dituztenak (unitate karbonatoduna) eta, bestetik, kolore marroikarek sedimentu detritikoz (konglomeratu, hareharri eta lutitak) eratutako arroken sekuentzia desberdinak (unitate detritikoa).

Unitate karbonatoduna da lehendabizi sortu zena, beraz zaharrena. Gaur egun Anbotoko eta Aramotzeko mendizerretan ikus daitezkeen kareharri masiboak, kareharri geruzatuak, tupakareharriak edo tupak Behe Kretazeoaren bukaeran, Aptiarrean eta Albiarrean zehar, sortu ziren, orain dela 115 eta 105 Ma (milioi urte) artean. Itsas azpian garatu ziren, eguzkiak ondo argiztatutako oso sakonera txikiko itsaso garbi, epel eta lasai bateko arrezifeetan. Baldintza horietan soilik sortzen dira, gaur egun ere, mota horretako arrokak eta, horrez gain, baldintza horiek oso egokiak dira bizitzaren eztanda zoragarria gertatzeko.




**4. IRUDIA**

Zabalanditik Anbotoko gailurrerako bidean aurkitutako fosilak.

Arroka karbonatodunak fosilez josita daude eta errudistak guztien artean ugarienak dira (3. irudia): edozein tontorrerako bidean oso erraz ikusten dira arroketan kareharria baino kolore ilunagoko oskol zatiak. Errudistak dinosauroekin batera desagertu ziren molusku bibalbioen familia baten parte dira. Bi kusku zituzten, gaur eguneko hainbat muskuiluk bezala; kuskuetako bat, kukurutxoen antzekoa, itsasoaren hondoan finko zegoen, substratoari lotuta. Besteak kukurutxoaren goiko aldea estaltzen zuen, tapa bat bailitzan (3. irudia).

Kretazeoan arrezifeetako lekurik onenetan bizi ziren, bizilagunak toki eskasagoetara baztertuz. Errudisten bizilagunen artean arruntak dira beste mota desberdin batzuetako koralak, chondrodontak, foraminiferoak, algak, ekinodermatuak zein gasteropodoak. 4. irudiko argazkietan, Zabalanditik Anbotorako bidearen hasieran aurki daitezkeen koral bakartiak zein hemiesferiokoak eta chondrodontak ikus ditzakegu. Chondrodontak, 5-20 cm bitarteko kusku laudun bibalbioak dira, Kretazeoan bizi zirenak eta orain ez ditugunak.

Ametsetako paisaia horretan bat-bateko gertaera bortitza gertatu zen: prozesu bolkaniko batek inguruko bizi-baldintzak aldarazi eta gaur egungo erliebearen morfologia baldintzatu zituen. Prozesu hartan sortutako arroka magmatikoen aztarnak Pol-poletik Larranorako bidean aurkitzen dira. Urrundik sumatu daiteke non dauden material magmatikoak, kareharri biluziaren artean dauden landaretza eremuek salatzen baitituzte (5. irudia). Larrano ingurua ere horren ondorio da, eta belarrez estalita dago, Anboto eta Alluitz ez bezala.

**5. IRUDIA**

Larrano inguruko ezaugarri geologiko aipagarrienak luburbiltzen duen eskema.









**6. IRUDIA**

Larranora iritsi aurreko arroka igneoetako zutabe disjunkzioa eta arroka basaltiko freskoaren argazkia.

Larranorako bidean zeharkatzen diren bi ingurune berdeetan dauden arrokak gertutik begiratuz gero, berehala ohartuko gara ez dutela kareharriekin zerikusirik. Berde kolorekoak dira eta milimetro gutxi batzuetako kristal prismatiko distiratsuak zein mineral ilunak bereizten dira (6. irudia). Kristal prismatikoak plagioklasak dira eta mineral ilunak piroxenoak eta anfibolak batez ere, basalto eta diabasen ohiko mineralak, arroka igneoak direnaren seinale. Azaleramenduan ikus daitekeen beste ezaugarri bereizgarri bat ere aurkezten dute, zutabe-disjunkzioa (6. irudia). Zutabe-disjunkzioa arroka igneoen hozketa-baldintza zehatzetan sortutako arrakala-sareak eragin dezakeen egitura da. Mundu-mailako adibiderik aipagarriena Irlandako kostaldean “Clochán an Aifir (Erraldoien Galtzada)” bezala ezagutzen den ingurua izan daiteke. Gurea ere, maila apalagoa duen arren, zinez polita da.

Arroka igneoak eragile higatzaileen aurrean, euria eta izotza batez ere, degradatu egiten dira eta landaretzak erabiliko duen lurzorua sortzen dute. Kareharriak, aldiz, euri-uretan astiro-astiro disolbatu eta urak eramaten dituen konposatuetan desegiten dira. Kareharrietako buztin-proportzio txikia da disolbatzen ez den elementu bakarra, ondorioz lurzorua sortzeko beste buztinik ez dagoenez oso murritza da bertan has daitekeen landaredia. Horixe da arrokaren biluztasunaren arrazoia.




**7. IRUDIA**

Belaki silizeodunen aztarnak gordetzen dituzten geruzen kokapena Larranon, mikroskopio argazkia belakien espikulekin eta gaur eguneko belaki silizeoen argazkia.

Larrano gaineko landa-eremu lauak beste azalpen bat du. Prozesu bolkanikoekin lotutako gas isurketek inguruko bizi-baldintzak aldarazi zituzten. Errudistak eta koralak ezin ziren baldintza berri horietan bizi, orduko beste hainbat bizidunen antzera, eta horrek kareharri masiboen sorrera eragotzi zuen. Bizi-baldintza horietan bizi zitezkeen animalia bakarrak belakiak ziren, espikula silizeodunak eta horien arrastoak gordetzen dira Larrano inguruan dauden zenbait geruzetan (7. irudia). Kareharriak sortzeko baldintzak egokienak ez zirenez, bertan buztin proportzio altuagoak pilatu ziren, eta horixe da orain ikusten diren tupakareharrien eta tupen agerpenaren kausa. Alboetarantz, gasen isurketaren eraginik ez zen lekuetan, oparoa zen bizia, eta Anboton edo Alluitzen ageri diren kareharri masiboak sortzen ziren.


HAREHARRIAK
KONGLOMERATUAK

Unitate detritikoa karbonatoduna baino zerbait gazteagoa da (110-100 Ma), baina ziur aski, tarte batean behintzat, denboran gainezarri egingo ziren. Sasoi horretan unitate bakoitzak ezaugarri propioak zituen ingurune sedimentario banatan sortuko zen. Unitate detritikoaren baitan, ingurune geologiko desberdinetan metatutako bi sekuentzia detritiko bereizten dira: Balmaseda formazioa eta Durango formazioa.

Balmaseda formazioa unitate karbonatodunaren hegoaldean agertzen diren kolore marroiez dago adierazita (2. irudia). Balmaseda formazioa deritzogu herri horren inguruan zehaztu zirelako unitatearen ezaugarriak. Bertan agertzen diren arrokarik arruntenak lutita grisbeltzak dira, baina ohikoa da hareharrizko geruzak tartekatzea. Urriagoak dira sekuentzian tartekatutako konglomeratuak. Urkiolamendin ikus daitezke hareharri eta konglomeratuen azaleramenduak (8. irudia). San Antonio egunean bikoterik nahi izanez gero birak emanez inguratu behar den harria ere Balmaseda formazioko konglomeratua da (9. irudia).

Balmasedako formazioko arroketan aurkitutako egitura sedimentarioak eta fosilak adierazten dute delta-sistema batean eratutakoa dela. Sasoi horretan kostaldea Araba hegoaldean kokatuko litzateke eta ibaiek kontinentetik garraitutako sedimentuek osatuko lukete Balmasedako delta (10. irudia). Apurka-apurka deltako sedimentuek arrezifeak estaltzen joan ziren eta kareharrien desagerpena eragin zuten.

**8. IRUDIA**

Urkiolamendiko hareharri eta konglomeratuen argazkiak.

**9. IRUDIA**

Urkiolako arroka ezaguna Balmaseda formazioko konglomeratua da, arroka zati borobilduz osatutakoa.











**10. IRUDIA**

Orain dela 100 Ma ingururako, gure lurradea osatzen duten arroken adinerako, iradokitzen den paleogeografia.

Durango formazioak unitate karbonatodunaren iparraldean marroiz estalitako eremuak betetzen ditu (2. irudia). Bertako arroka arruntenak lutitak dira ere eta noizbehinka, tartekatuta, hareharriz eratutako geruzak ageri dira. Arroketan burdin oxidoen arrasto ugari daude, lutitetan burdina noduluetan pilatzen da eta hareharrietan berriz, arrokan zehar hedatu daiteke kolore hori-gorrixka bereizgarriak sortuz. Zenbait eremutan burdinaren pilaketa nabarmena izan daiteke. Horren adibide, XX. mendearen hasieran ustiatutako Arrazolako burdin mehategiak. Atxondoko bide-gorriak burdina garraiatzeko eraikitako trenbidearen traza jarraitzen du. Bide-gorrian bertan ikus daitezke Durango formazioan tartekatutako arroka igneoak ere (Axpeko silla), Artzeagako baserrietara heldu aurretik (11 irudia).

Durango eta Balmaseda formazioak, beraz, antzeko arroka detritikoz eratuta daude baina ingurune desberdinetan. Balmasedako formazioa itsas-plataforman zehar hedatzen den sekuentzia deltaikoa da eta ondorioz sakonera txikian metatutako sedimentuz osatuta dago. Durango formazioa, ostera, eremu sakonagoetan metatutako materialez dago eratuta. Kontinentetik datozen sedimentu detritikoak itsas-plataforma gainditu eta sakonera handiagoetara iristeko malda igaro duten

materialak dira (10. irudia). Arroka igneoak beranduago tartekatu ziren sekuentzian, mantuan sortutako magmek azalerako bidean zeharkatutako arroketan.

## ITSASOAN SORTUKOA MENDI BILAKATU DA

Aipatutako arroka guztiak itsasoan sortutakoak dira zalantzarik gabe, erakusten dituzten fosilak itsastarrak direlako eta gaur egun ezaugarri berdinak dituzten arrokak itsas azpian sortzen ari direlako. Orduan, nolatan daude gaur kontinente gaineko erliebea osatzen? Itsas-mailaren aldaketa izan daiteke burura etortzen zaigun lehendabiziko arrazoia, baina hori ezinezkoa da. Gaur egun Lurrean dagoen izotz guztia urtuta ere, itsasoaren maila 60 m inguru baino ez litzateke igoko. Beste arrazoiren bat bilatu beharra dago: plaka-tektonikaren teoriara jo behar dugu, zalantzarik gabe. Lurraren azala etengabeko mugimenduan dago, nahiz eta gu ez konturatu. Lurrikarak eta erupzio bolkanikoak dira mugimendu horren ondorio ikusgarrienak. Lurraren azaleko plakak oso astiro mugitzen dira (cm gutxi batzuk urtero), baina munduko denbora guztia dute, eta milioi urte gutxi batzuk nahikoa dira plakak ehunka kilometro desplazatzeko.

Orain dela 80 Ma inguru, Afrikako plakaren mugimendua aldatu eta iparralderantz abiatu zen. Mugimendu horren eraginez Iberiako plaka Europako plakaren aurka bultzatu zuen, eta bien artean zegoen itsasoan metatutako sedimentu itsastar guztiek konpresio izugarria pairatu zuten. Konpresio horren eraginez, itsasoaren hondoko geruzak itsas azpitik altxarazi zituzten tolesak eta failak sortu ziren. Beraz, Durangaldea, eta Euskal Herriaren gehiengoa, itsasoaren hondotik altxarazitako arrokez eratuta dagoela esan daiteke.

**Arturo Apraiz**
Geologia Saila (UPV/EHU)

**11. IRUDIA**

Atxondoko bidegorrian Axpeko sillak duen azaleramendua eta bertatik ateratako diabasa baten argazkia. Kolore argiak plagioklasak dira, berdeak anfibolak eta ilunenak piroxenoak.






**2007**
**1.** zk




**2008**
**2.** zk




**2009**
**3.** zk




**2010**
**4.** zk




**2011**
**5.** zk




**2012**
**6.** zk




**2013**
**7.** zk




**2014**
**8.** zk




**2015**
**9.** zk




**2016**
**10.** zk




**2017**
**11.** zk




**2018**
**12.** zk




**2019**
**13.** zk




**2020**
**14.** zk




**2021**
**15.** zk

# astola

**94 681 80 66 telefonoan salgai**
Sarean ikusteko: **www.geregiaga.eus**





LANDA PAISAIA BATEN EBOLUZIOA · LEOPOLDO ZUGAZA · KORTAK: HERRI-BASOETAKO SAIL BOROBILEN AZTARNAK · LOS ETXABURU Y SU TORRE · IURRETAKO HARGINAK · LOS LAVADEROS DE DURANGO · BARRUKO IBILBIDEAK · DURANGALDEKO PAISAIA ZORAGARRIAREN AZPITIK

Bizkaia foru aldundia diputación foral
Durangaldeko Adiskideen gerediaga elkartea
DURANGO Garena eginez Vivir y convivir